


BALIO PROPOSAMENA

Lehorgailuaren zarata eragozten dien pertsoneri arazoak konpontzen dizkiegu gure **Luma** ile-lehorgailuen bidez. Ilea oso kaxkar dutenez ere bai balio du duen mekanismoarengatik. Gainera, kablea opzionala (plegablea) du, horrela, bidaiatzen duten pertsonentzat askoz eroso eta eramangarriagoa izan daiteke.

Zer mekanismo du?

- **Temperatura erregulatzen du;** ikusten duen temperatura egokian (beroago edo hotzago) jartzen da eta horrela min gutxiago egiten dio ileari. Horrez gain, ile lehorgailu bakoitza erosteagatik, gure *spray-a* (ile-babeslea) errebajutzen dugu.

Jende asko egon daiteke ile-lehorgailu hau erosteko pres. *Zergatik?* Ideia hau ez da beste inon ikusi oraindik. Azken finean, noizbait, denek nahi izan dugu zaratarik gabeko lehorgailua edukitzea.



Bezeroek gure enpresa, produktu edo zerbitzua aukeratzearen arrazoia kualitatiboa da. Guk gure produktuaren kalitatearengatik (diseinuarengatik, bere funtzionamenduagatik,...) saltzen dugu. Gure lehorgailuak jauzi kualitatibo bat suposatzen du teknologian, oraindik ez delako horrelakorik asmatu.

Gure lehorgailuak gauza asko eskaintzen ditu; Hala nola, zaratarik ez edukitzea edo botoi bat zarata gustuko baduzu aktibatzeko, temperatura erregulatzen du ahalik eta kalte gutxien egiteko, tolesgarria da, bateria kargagarria du (beraz, ez duzu entxufe baten menpe egon behar bidai batera bazoaz edo etxean bazaude)... eta bateria horrek bost egun inguru irauten du. Agortzen den bakoitzean, atera eta kargatu ahal duzu unibersala den edozein kargagailurekin.

Diseinua ez da berria, dagoeneko ikusia baita, baina ile-lehorgailu batean inoiz ikusi ez dena guk sortu dugu.

Guk sortu dugun marka, **Luma** da eta gure logoa dugu. Lehorgailuak duen prezioa **259,99€-koa** da.

Arriskuak murrizten ditu, adibidez, ileari min gutxiago egitea eta ez egotea hainbeste denbora entxufatuta, orduan zuteak murrizten ditugu.

Denontzat eskuragarria da, sareko orrialde bat sortuko dugu Europako pertsona guztiek eros dezaten. *Samsung*-ekin kolaboratuko dugunez, haien denda fisikotan ere salduko dugu, beraz, jendeak aukera eukiko du fisikoki edo interneten bidez erosteko.

Erabiltzeko oso erraza da, tolesgarria delako eta ez duzulako entxufe baten beharra izango.